



2012ko Urtarrila



## Ipar Kutxak Luzaro partaidetzako mailegu-erakundearen kapitalaren %5 erosi du

**Operazio honek indartu du kutxak Euskadiko ETEekin duen konpromisoa, zeren horiek baitira Luzaroren maileguak gehien hartzen dituzten enpresak. 16,15 milioiko funts propioekin, Luzarok 141 mailegu formalizatu zituen 2010ean, ia 38 milioiengatik, eta indarrean zituen maileguak 245 milioira iristen ziren guztira.**

Ipar Kutxak Luzaroren kapitalaren %5 erosi berri du. Finantza-etxe horrek partaidetzako maileguak ematen ditu inbertsioetarako eta maileguak finantzak finkatzeko.

Luzaroren kapitalean sartzearen bidez, Ipar Kutxak erakundearen administrazio-kontseiluan esku hartuko du, eta bere inguruneko enpresa txiki eta ertainen finantziarioarekin duen konpromisoa indartu du, enpresa horiek baitira erakunde horren maileguak gehien jasotzen dituztenak. Ildo beretik, Carlos Osésekin zuzentzen duen kutxak akordio bat lortu zuen aurtengo maiatzean LKS Taldearekin, enpresentzako finantza-irtenbideak eskainiko zituen enpresa berri bat abiatzeko: IK-LKS.

Euskal kreditu-kooperatibarentzat, operazio hau euskal enpresa txiki eta ertainen aldeko sostengua indartzeko eta handitzeko helburuaren baitan sartzen da. Luzaroren bazkidea den aldetik, kutxak likidezia lortzen lagunduko die enpresa horiei, finantziarioa baldintza onuragarrian eskuratzen lagunduz, Europako Inbertsioen Bankuaren eta Eusko Jaurlaritzaren sostenguari esker. Halaber, Ipar Kutxak parte hartu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoak finantza-erakundeekin eta Elkarren Bermerako Sozietateekin (S.G.R.) sinatzen dituen finantza-lankidetzako hitzarmenetan.

Luzaro E.F.C., S.A. mailegu erakunde finantzario bat da, Espainiako Bankuak arautua; beraren sozietate-helburua da epe luzerako partaidetzako maileguak ematea, enpresa txiki eta ertainak bultzatzeko, sustatzeko eta kapitalizatzeko; eta, oro har, haien sorrera, garapena eta finantziarioa sostengatu eta bultzatzearekin lotutako beste edozein mailegu eta jarduera gauzatzea. Bere akziodun berriarekin batera (Ipar Kutxa), Luzaro E.F.C., S.A. sozietatean parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru aurrezki-kutxek, Euskadiko Kutxak, Banco Gipuzcoanok, Bankoak eta Industria Ministerioaren mende dagoen Berrikuntzarako Enpresa Nazionalak. 16,15 milioiko funts propioekin, Luzarok 141 mailegu formalizatu zituen 2010ean, ia 38 milioiengatik, eta indarrean zituen maileguak 245 milioira iristen ziren guztira.

Ipar Kutxak 399 langile ditu gaur egun, horietatik %97k kontratu mugagabea dutela, eta 170.000 bezero. Erakundearen merkataritza-sarea Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune nagusietan zehar sakabanatutako 89 bulegok osatzen dute.